

BITTOR KAPANAGA

**Bitorrek gurago eban ibili, egon baino;
gurago eban aske, eske baino;
gurago eban izan, esan baino;
gurago eban erroetan tinko,
lehena baitator gaurdaino.**

Bitorri idatzi deusadan olerki labur hau kisketa baino ez da artikuluko atea zabaltzeko. Behin zabalik danean, Gontzal bizkaieraz zoriondu ostean, euskara batuko idazkerara moldatuko naz, testuko ideietan txairo baizen mantso jarduteko.

Zoriondu

Zoriondu egiten dot Gontzal Mendibil Bittor Kapanaga talaiian jartzeagaitik, bozgorailua eta ospea eskaini deutsozalako.

Irakurleak aurretiaz jakin dezan, etiketatu baino kalifikatu egingo dut Bittor, deskribatu.

Bittor adiskidea

Bittor berbalagun izan dut, baita iritzi-emaile ere. Rikardo Badiolak dio, Bittor Bilbora etortzen zenean, Euskaltzaindiko bulegora hurreratzen zela. Ordu laurdenen bat ematen zutela kontu-kontari. Psikologoa, enpatia handikoa zela, inguruko

euskaltzaleen analisi psikologikoa egin ohi zuela. Beti begirune handiz, aurkarien gainean ere. Bitorrek berak esana da: *Amagandik hartu neban psikologia indarra garatzea*. Rikardogaz, beraz, asaskatu egiten zen.

Bittor euskal-guraso

Neure bizitzan euskal-gurasoetariko bat izan dut Kapanaga. 60ko hamarkadan, nahiz eta diglosian, euskal giroak inguraturik bizi nintzen. Hala ere, euskararen kontzientzia esplizitodunak bakanak ziren. Umezaroan Arenaza medikua izan nuen Mungian; Karmelo Etxenagusia Derioko Seminarioan 1965ean; Martin Orbe-eta Herri Gaztedin, eta Bilbo Handian Imanol Berriatua eta Bittor Kapanaga, besteak beste, beti ere gogoan dela Euskaltzaindiko giroa, ahaztezina baitzait. Norberari gaztaroan zirrara egiten dio gerra aurreko euskaldunekin harremana izateak. Beldurraren eta ezaren girotik datozela jakinik, edo erdi jakinik, ze aurreko belaunaldia ezagutu barik abiatu ginen euskalgintzan. Badakigu gundaz isiltasuna zela, eta isiltasun horrek kulturaren etena suposatzen zuela guretzat. Halandaze, nik badut neure barruan dolu-sentipen bat Bittorren preteritoaz ezer gutxi jakiteagatik, baita –barkagaitza dena– Koldo Mitxelenaren gudateaz edo beronen emazte Matilde Martinez de Ilardiyaren militantziaz ezerezkariak baino ez jakiteagatik. Kapanagak gerrateaz hauxe dio: *Arineketan etxetik Berrizko Handikoara ibesi, eta itzuleran guztia errea, suntsitua, mixeria*.

Mendebalde Kultura Alkartekook omendu egin genuen bittor 2000. urtean

Orduan Mendebaldeko neure arduraren, sarritan izan nuen berarekin harremana. Omenaldiko hitzak, 2001eko liburukian datozenak, Xabier Amurizak¹ idatziak dira. Txapeldunak pen-

¹ Mendebalde.eus, Mendebalde Kultura Alkartea, Argitalpenak, 2001eko

tsalari-ikerlari binomioa darabil artikulu buruan Kapanaga kalifikatzeko. *In situ* deskribatzen ditu Bittorren Otxandioko berbak eta beharrak. Xabierrek dioenez, Kapanagak esaten dituen iritziak –erlijioaz, arteaz, euskaraz, baserriaz, politikaz, gizarteaz– originalak izan ohi dira, sarritan pentsaera ofizialaren kontrapuntuak.

Amaieran, Kapanagari, omenduei oparitzen zitzaien estatua –Alfontso Irigoienek taiutua– eman genion. Osteko bazkaria, istorioz bete-betea, eta lagunarte guztiz aberatsekoa gertatu zen. Egun zoragarria Bittorrekin.

Bittor Kapanaga Eibarren

Bittorren Eibarreko aroaz jarduteko, 65 bat urte egin behar dugu atzera, 1953ra, euskara batuaren aurreko sasoirara. Edonola ere, nik ez dut errepikatuko hemen Wikipedian datorren informazio interesgarria. Kapanaga –bere anaia ere bertan da– ikasketak eta lana egiteaz gainera –Kareaga enpresa txikian–, euskaldun berriei euskaraz irakasten ere ari da –ez euskara dakitenei, ez alfabetatzekoei– maila hori beste batzuei baita–gokie–, eta darabilen metodoa Xabier Peñarena da. Beragaz batera dihardute: Imanol Laspirrek, Juan San Martinek, Jose Luis Ugarteburuk, eta Serafin Basaurik, besteak beste. Gainera, taldean argitaratu, diruz lagundu eta zabaldu zuten Umandiren Gramatika, lehenengo multikopiaz; gero, liburu formatuan. Azken batean, talde horretakoek gerra osteko euskal mugimendua sortu zuten Eibarren.

Bittorrek, Eibarren den aldian, jakintza hegoek igoaraztea gura zuen. Horren froga da Euzko Gogoan idazten hastea, eta 1956an Parisera joatea, Congreso Mundial Vascora. Han izan zuen harremana, beste askoren artean, Federiko Krutwigekin, Mitxelenarekin, eta kulturaz jantzitako askorekin.

Jardunaldiak, “Pentsalari ikerlari”: Euskalkia eta hezkuntza.

Eibar ordukora, Bilbao-Behobia autopistaren aurrekora, Alfontso Irigoien joan ohi zen astero euskal kultura eta historia irakastera. Bittorrek ez zuen parte hartu Alfontsoen saioetan, ezta politikan ere, Benito del Vallek Eibarren bertan kudeatzen zituen hitzaldietan. Hau da, Bittor ez zen joaten bertan antolatua zuten isilpeko taldera.

Politikan dena den, optimista itzela zen –Serafin Basauriren berbak–: “Franco laster doa”. Itxaropen handia zabaltzen zuen. Horrez gainera, Frantziako politikaz-eta asko zekiela erakusten zuen solasaldietan.

Azken batean, abertzale peto-petoa zen –dio Serafin Basaurik– pertsonaia berezia, maitagarria, apala, buruz berezkoa zeukana, hausnarketa sakonetakoa.

Bittor kapanaga mahai-inguruan. III. Euskarazko liburu eta disko azokan. Durangon, 1988an. ekainak 10, 11 eta 12an²

Gaia: Arantzazu eta euskara 20 urte geroago.

Moderatzailea: Juan Luis Goikoetxea Arrieta.

Hizlariak: Aita Villasante euskaltzainburua.

Xabier Kintana: EHUUn Euskarako Gabineteko burua.

Xipri Arbelbide: idazle, kazetaria.

Bittor Kapanaga: sortzaile, idazle eta hizlaria. *Pinu artean bizi den betiko haritz sendoa*.

² “Auñamendi Eusko Entziklopedia: “Gerediaga Elkarteak 1986ko udaberrian, Durangoko Euskal Jaien mendeurrena zela eta, Euskarazko Liburu eta Disko Azoka antolatu zuen, eta bertan euskarazko materiala baino ez zegoen. Azoka berri honek hurrengo bi urteetan (1987 eta 1988) iraun zuen, baina parte hartzaileen zein bisitarien erantzun apalak erabakiarazi zion elkarteari ez jarraitzea, eta abenduko Azokaren euskalduntze progresiboan lan egitea”.

Bakoitzari gutuna idatzi nion, eta galdetegia ere bidali nien. Taldeak erantzuteko 23 itaun igorri nizkien, eta bakoitzari berezituak, pareta. Bittorri itaun bi hauek:

1. Zer dakite herritarrek, euskaldunek, euskara batuari buruz?
2. Euskara batua zenbateraino da jendearentzat euskara berria?

Gainera, nori bere eskutitza idatzi nion; Bittorri honako berbak:

Bittor Kapanaga jaunari. Derion, 1988.eko ekainaren 6an.

“Agur Bittor:

Gerediagarrek mahai-ingurua zuzentzen jarri nabe. Nik, zeozelan atontzeko, itaun batzuk bidaltzen deusudaz, ordena be apurtxu bat jagon daigun. Astia dozunean, emioizu hain zeurea dan begirada zorrotzetariko bat.

Ez noa luzatzera. Ondo izan! Durangon 11n ikusi arte!

Zure adiskide, Juan Luis Goikoetxea Arrieta”.

Café Iruña-Baqué nobela laburren sariketan epaimahaiko

Nik sariketa horretako zortzi edizio ditut gogoan, zortzigarrena 1990ekoa.

Azkenekoetan, 600 mila pezetako saria ematen zen, afari eder eta guzti.

Bittorrekin batera epaimahaiko izan ginen –esate baterako 1989an– Xabier Gereño, Marisa Barrena, Angel Zelaieta eta Juan Luis Goikoetxea.

1984an Xabier Kintanari eman genion saria TA MARBUTA eleberri laburratik. Ez eztabaida barik. Bittorrek urte askotan bere iritzia erdi belarrira esaten zidan, apaltasun doinuaz. Zabal bezain sakon hausnartuta ekartzen zuen eleberrien gai-

neko iritzia. Poza zen berarekin izaten genuen solasa. Izatez, Bittor bazen nor literaturako epaimahaietan jartzeko. Hara Xabier Gereñok dioskuna³:

AZ: “Bittor Kapanagak lehen zure lan guztiak irakurtzen zituen (zuk zeuk pasatzen zenizkion originalak, haren iritzia jasotzeko); lehenengo garaiko nobelak erretiratu eta azken garaikoak baino ez uzteko esan omen zizun”.

XG: “Bai! Bittor Euskaltzaindian ezagutu nuen, baina hori bai, ez lehengo Euskaltzaindian, Erribera kaleko Euskaltzaindi zahar hartan, Astarloa kaleko garai berriagoan baizik. Adiskide mina izan dut. Iruña kafetxeko sariketetan mahaikide izan ginen. Horrez gain, garai batean nire lan originalak irakurri ohi zituen, argitara eman baino lehen. Euskararen ezagutza handia dauka. Adibidez, zuk hari ematen zenion orrialde bat euskaraz idatzita, autorearen izena aipatu barik, eta bera gai zen autorearen asmatzeko. Berehala antzematen zion idazleari estiloagatik. Sariketetara aurkezten ziren lanei (eta nobela izaten ziren) segituan igartzen ziren andre ala gizon batek, gazte ala nagusi batek idatzitakoak ote ziren. Behin Mario Onaindiaren eleberri batekin gertatu zitzaigun hori: lehiaketara aurkeztu zuen, eta Bittorrek berehala igarri Mariorena zela lan hura”.

Urte haietan erdarazko epaimahaikoekin ez zen gorabeherarik falta izan. Une horietan Bittor erabat deseroso sentitzen zen.

Azken batean, erdaraz 7 eleberri, behintzat, argitaratu ziren, eta euskaraz 10, Café Iruñako eleberri laburren sariketan, zeinetan, esan bezala, Bittor ere epaimahaiko izaten zen.

³ Zuberogoitia, Aitor: Xabier Gereñori Elkarrizketa. Jakin, 138. zkia, 2003.

Gontzal Mendibilek idatziriko “Bittor eta Biok” Liburuaren araberako iruzkinak

Gontzal Mendibilek⁴ liburuko 127. orrialdean idazten du: EHAS –Euskal Herriko Alderdi Sozialista–, klandestinoaren sorreran Apieta baserrian, Bittorrek lagatakoan, elkartu ziren: Jose Luis Lizundia, Joseba Agirreazkuenaga, Patxi Zabaleta, eta Jose Mari Montero –beste 15en bat gazterekin batera–. Dio Jose Marik, halako une baten, esan ziela Kapanagak hango gazte sozialistei sutondora hurreratu zirelako: “Os habéis arrimado a la burguesía del calor”. Hori 1975ean zen.

Bestalde, 136. orrialdean idazten du Gontzalek: “zeure herriko Juan Ajuriagerra politikaria estima handian zenuen, Bittor”. Honetaz hauxe dio Monterok: Bittorrek oso harreman ona izan zuen Ajuriagerrarekin, aurkako ideiak edo antipodetakoak eduki arren. Inoiz ez zioten utzi berba egiteari. Bitzuak ziren mutil zaharrak. Ajuriagerra garratz-mingotsa; Bittor txeratsua, gozoa.

Izan hadi, Bittor, zoriontsu Zeruko Otxandion.

Juan Luis Goikoetxea Arrieta

⁴ Mendibil, *Gontzal: Bittor eta biok*, Ediciones Beta III milenio, 2019, S.L. 2019.